

Errepublikanismoa Gipuzkoan ospatutako hauteskundeetan (1890-1923)¹

El republicanismo en la elecciones de Gipuzkoa (1890-1923)

Républicanisme aux élections à Gipuzkoa (1890-1923)

Belaustegi, Unai.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
Unai.belaustegi@ehu.eus

Hartua: 2018.09.10

BIBLID [1136-6834, eISSN 2386-5539 (2018), 42; 29-50]

Onartua: 2018.12.04

Artikulu honetan, Gipuzkoan errepublikanoek hauteskundeetan lortu zituzten emaitzak aztertu dira. Horretarako, 1890 eta 1923 bitarteko hauteskunde orokorrak, probintzialak eta udal hauteskundeak hartu dira kontuan, Espainian gizonezkoen sufragio unibertsala ezarri zenetik Primo de Riverak estatu kolpea eman zuen arte. Emaitza hauek errepublikanismoak, teoriarik beretzat egokia ez zen testuinguruan, lortu zuen ezarpen politikoa ulertzeko baliagarriak dira.

Hitz gakoak: Errepublikanismoa, hauteskundeak, sufragio unibertsala, Gipuzkoa, Berrezarkuntza monarkikoa (1876-1923)

Este artículo analiza los resultados electorales de los republicanos en Gipuzkoa en las elecciones generales, provinciales y municipales entre 1890, año en que se aplicó el sufragio universal masculino, hasta 1923, cuando Primo de Rivera inició su dictadura. Los resultados electores sirven para ver cómo encaraba el republicanismo la lucha electoral, la representación obtenida en las instituciones públicas, en un contexto (en teoría) hostil como el guipuzcoano, por el predominio del tradicionalismo político. La cultura política republicana consiguió articular un sólido espacio electoral, particularmente en los núcleos urbanos.

Palabras clave: Republicanismo, elecciones, sufragio universal, Gipuzkoa, Restauración monárquica (1876-1923)

L'objectif principal de ce article est d'analyser le succès électoral des républicains en Gipuzkoa lors d'élections générales, régionales et locales. Pour cela, nous avons analysé toutes les élections célébrées entre 1890 et 1923. Les résultats constituent le premier aperçu général du soutien politique des républicains dans le contexte traditionnel régional.

Mots-clés: Républicanisme, élections, vote populaire, monarchie parlementaire espagnole (1876-1923).

1. Artikulu hau, 2014an defendatu genuen tesiko kapitulu baten moldaketa bat da. Orain arte publikatu gabe egon da eta jaso ditugun eskaera ezberdinei erantzunez, laburpen hau publikatzea egokia zela pentsatu dugu.

1. SARRERA

Gipuzkoan 1890 eta 1923 bitartean ospatu ziren hauteskundeetan errepublikanoek jokaturako papera aztertzea du helburu artikulua honek. 1890ean sufragio unibertsala ezarri zen Estatuan eta 1923an, Primo de Riveraren diktadurak, errepublikanismoa politikatik baztertu zuen. Ikerketak bilatu nahi duena beraz, ia lau hamarkada hauetan zehar errepublikanismoak gizartean eduki zuen ezarpena instituzio publikoetan nola islatu zen aztertzea da. Horrez gain, errepublikanoek hauteskundeekiko zein jarrera erakutsi zuten ere kontuan hartu da: parte hartu zuten edo ez, parte hartuz gero koalizioak burutu zituzten edo ez, norekin antolatu zituzten koalizio horiek eta hauteskunde kanpainak nola burutu zituzten... Azken puntu honekin lotuta, errepublikanoek hainbestetan defendatu zuten demokraziaren jokoa zenbateraino errespetatu zuten eztabaidatuko da. Gipuzkoaren aniztasunean erreparatuta, ahal izan den neurrian, bai hiriburuaren eta baita probintziako herri eta hiri nagusien nolokotasuna kontutan hartzen saiatu da eta momentu bakoitzean hauteskundeak baldintzatu zituzten legeak zeintzuk izan ziren argi eduki da.

Errepublikanoen parte hartze politikoa aztertzeko, 1890 eta 1923 bitartean probintzian antolatu ziren Kongresurako, Diputaziorako eta udaletarako hauteskundeak hartu dira kontuan. Tarte kronologiko ezberdinetan zatitu da aipatu tarte²: mendearen azken hamarkada (1890-1899), aniztasun errepublikanoaren azalratzeak instituzioetan izan zuen isla aztertzeko; mende hasieratik Unión Republicana eta Foru Ligaren urteetan zehar (1907 arte); Foru Liga desegin eta Gerra Handia arteko urteak, sozialistekin koalizioak antolatu ziren urteak (1907-1914); eta azkenik, Primo de Riveraren diktaduraren hasiera arte (1914-1923), sistema bera eta probintzia krisian sartu eta errepublikanismoa ere gainbeheran hasi zen garaia.

2. SUFRAGIO UNIBERTSALAREN EZARPENA ETA INPERIOAREN KRISIA, 1890-1899

1890eko ekainaren 28an, Sagastaren Gobernuak, kontserbadoreei lekua utzi aurretik azken erreforma handia gauzatu zuen: gizonezkoen sufragio unibertsalaren legea. Lege honek, 25 urtetik gorako gizonezko guztiei eman zien boto eskubidea, hautesle kopurua %25era arte igoaz: ia 900.000tik ia

2. Tesiaren kapitulu hau egiteko erabili ziren iturri nagusienak garaioko egunkariak izan ziren. Egunkariok, informazioa iturri ofizialetatik jaso zuten. Egunkari ezberdinetako informazioa kontrastatu da. Etorikizunean, zehaztasun gehiago lortzeko, iturri ofizialak eurak kontrastatzea faltako litzateke, nahiz eta aurreikusitako denez, informazioa ez den askorik aldatuko. Informazio gehiago nahi izatekotan, kontsultatu: BELAUSTEGI, Unai, Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923): bilakaera, sustraiak, gizartratzea eta prosopografia, UPV/EHU, 2014, Tesia, eta BELAUSTEGI, Unai, Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923), Leioa: EHUPress, 2015.

5.000.000 arte (euskal hiru probintzietan %20 inguru igo zen)³. Sagastaren erabakia, XIX.mendearen amaieran mendebaldea kolpatu zuen olatu demokratikoaren baitan ulertu behar da, nahiz eta ez zen sistema demokratizatzeko helburuz egin: hautesle kopuru altuagoak ez zuen joko demokratikoa bermatu. Txandatzeko sistemak zutik jarraitu zuen eta berarekin batera, hauteskunde sistemaren ustelkeriak⁴.

Bestalde, sufragio unibertsalak berak ez zuen, hasieran behintzat, errepublikanoen nahiz gainontzeko partidu txikien bilakaera askorik eraldatu.

Orokorrean, oso zaila da hauteskundeetan errepublikanoak errepublikano bezala identifikatzea, ia gehienetan monarkiko eta liberal independenteeekin koalizioan aurkeztu baitziren. Ondorioz, instituzio publikoetara zenbat errepublikano iritsi ziren ziurtatzea ez da posible.

Dena den, lortu den informazioaren arabera, 1885 eta 1890 bitartean badakigu Gorteetara ez zela errepublikanorik iritsi eta Gipuzkoako Diputaziora gutxienez bost errepublikano heldu zirela (jokoan zeuden postuen %14). Udal hauteskunderi buruzko informazioa, oso urria da. 1887an adibidez, Donostiako udalean herena izan ziren errepublikanoak eta 1889ko hauteskunderen ostean, ia erdia, indar politiko nagusia bihurtuz. Koalizioetik kanpo aurkeztu ziren errepublikanoek emaitza kaxkarrak lortu zituzten orokorrean. Gainera, errepublikanismoari ez zioten batere mesederik egin ez sistemaren ustelkeriak ez eta Euskal Herrian ohikoa bihurtu zen praktika politikoak: instituzioak kudeatzeko protagonista egokiak bidaltzea, joera politikoei hainbeste erreparatu gabe⁵.

Hauteskunde orokorren inguruan aipatu, 1885ean Zumaiako barrutia sortu ostean, Gipuzkoa bost barrutitan antolatuta zegoela. Erabakiak, ordura arte existitzen zen hiri munduaren eta nekazal esparruaren arteko ezberdintasuna


3. REAL CUESTA, Javier, Partidos, elecciones y bloques de poder en el País Vasco, 1876-1923, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 1991; 124.or. Legea irakurtzeko, RUEDA, Juan Carlos, Legislación electoral española (1808-1977), Bartzelona: Ariel, 1998; 134.orratik aurrera. Dardek, Legeak ez zuela «*sufragio universal*» aipatzen gogoratu zuen, eta bere aplikazioa demokrazia politikoaren ezarpen bezala kontsideratu zutela garaikideek; DARDE MORALES, Carlos, "Significado político e ideológico de la Ley de Sufragio Universal de 1890", *Anales de la Universidad de Alicante. Historia Contemporánea*, 10-11.zkiak, 1993-1994, 67.or. MARTINEZ CUADRADO, Miguel, Elecciones y partidos políticos de España (1868-1931), I. zkia, Madril: Taurus, 1969; 529.or.

4. MORENO LUZON, Javier, Alfonso XIII, 1902-1931, Madril: Marcial Pons, 2009; 81.orratik aurrera. Ustelkeriarekin lotuta, Garcia-Sanzekin ados dago autorea: «*las corruptelas de todo signo del sistema electoral exigen adoptar grandes cautelas a la hora de considerar las elecciones como indicadores válidos sobre los comportamientos políticos y la implantación de los partidos durante la Restauración*»; GARCÍA-SANZ MARCOTEGUI, Ángel, Caciques y políticos forales: las elecciones a la Diputación de Navarra (1877-1923), Iruña: A. García-Sanz, D.L., 1992; 306.or

5. Kudeatzaile onak bidaltzeko joera, udaletara eta Gorteetara ere zabaldu zen; CASTELLS, Luis, Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración, 1876-1915, Leioa: Siglo XXI, 1987; 463-464.orr. Garcia-Sanz ere antzeko ondorioetara iritsi zen Nafarroako Diputazioaren kasuan, Caciques y políticos Forales, op.cit.,306.or.

handitu besterik ez zuen egin, nekazal eremuen alde⁶.

Mapa 1.1. Gortetarako hauteskundeetarako barrutiak 1885tik, Zumaia-koa sortu zenetik, aurrera




1890eko abenduaren amaieran deitu eta 1891ko urtarrilean ospatu ziren hauteskunde orokorrak. Ondoren, 1893, 1896, 1898 eta 1899an. Lehendabiziko bietan Koalizio Liberalak emaitza onak lortu zituen. 1896an, errepublikanoek abstentzioaren alde egin zuten⁷ eta 1899an, Gobernuaren krisiaren ondorioz ospatutako hauteskundeetan, Berrezarkuntza garaiko emaitzarik onenak lortu zituzten errepublikanoek. Madrilera hautagai bat bidaltzea lortu zuten: Francisco Zavala. Gorteetan euskal probintzien autonomiaren alde lan egiteko baldintza jarri zioten Zavalari. Aipatzekoa da, abstentzio handiaren on-

6. REAL CUESTA, Javier, Partidos, elecciones y bloques de poder...*op.cit.*, 120.or. Castellsek jaso zuenez, Zumaia-ko barrutia Francisco Gorostidiri Gorteetan leku bat ziurtatzeko sortu zuten; CASTELLS, Luis, Modernización y dinámica política...*op.cit.*, 284.or. Hauteskunde orokorretako barrutiak zein herrik osatzen zuten ikusteko, CILLAN APALATEGUI, Antonio, Sociología electoral de Guipúzcoa (1900-1936), Donostia: Donostiako Aurrezki Kutxa, 1975; 219-220.orr. Mapa hau eta gainontzekoak autoreak berak egin ditu. Guztien oinarri, Gipuzkoako Diputazioak eskainitako mapa da (web orrialdean ikusi daiteke). Herri izen batzuek akatsa duten arren mapa oso argigarria iruditu delako aukeratu da.

7. Eibarko errepublikanoen batzarrean, Iturriozek botatuko hitzak onartu zituzten kideek: "sostuvo la conveniencia del retraimiento en las elecciones actuales. (...) dijo: que los dos partidos monárquicos que turnan en el poder, habían observado una conducta reprensible en lo concerniente a la política vascongada, y que ninguno de los dos merecía el apoyo de los elementos liberales y republicanos de este país"; *La Voz de Guipúzcoa* (VG), 1896/4/15, 1.

dorioz, Donostiako barrutian aurkeztu zen hautagai bakarra izan zela berau⁸.

Mapa 1.2. Diputaziorako hauteskundeetarako barrutiak 1888tik, Irungoa sortu zenetik, aurrera



Diputazioko hauteskunderi dagokionean, 1888an Gipuzkoa bost barrutian banatu zuten, Donostiako barrutia bitan zatitu eta Donostiako eta Irungo barrutiak sortuz. Kasu honetan bai, Sagastaren Gobernuak hiriburuko indar liberealen eskakizunei kasu egin zien, karlisten haserrerako⁹.


Hori gutxi balitz, Diputazioa berritzeko agindu zuen Gobernuak. Koalizio Liberalak 20tik hamaika ordezkari lortu zituen¹⁰: Donostia eta Irungo barrutietan launa ordezkari eta Bergarako barrutian, hiru ordezkari. Hauetatik gutxienez hiru (ziur asko lau ere bai), errepublikanoak izan ziren: Ramon Usabiaga, Felix Laborda eta Francisco Zavala, Donostia, Irun eta Bergarako barrutietan auke-ratuak, hurrenez hurren.

8. VG, 1899/4/17, 1. Kongresuko Artxiboko datuen arabera, Zabalak 3953 boto eskuratu zituen. 1899ko ekainaren 16an onartu zuen kargua, eta 1901eko apirilera arte mantendu zuen; Kogresuko Aktak, Hauteskunderen dokumentazioa 113, 21.zenb.

9. REAL CUESTA, Javier: Partidos, elecciones y bloques de poder...*op.cit.*, 120.or. Honela, hauteskunde orokorretan barruti batean zeuden herri askok, Diputaziorako hauteskundeetan beste barruti batean lehiatzen zuten. Informazio gehiago jasotzeko, BELAUSTEGI, Unai: Errepublikanismoa gipuzkoan, *op.cit.* tesia.

10. Liberalek 6721 boto eskuratu zituzten probintzia osoan eta karlistek 5796. VG, 1888/09/11. Behin Diputazioa berrituta, hurrengo hauteskundeetan ez ziren barruti guztiak batera berrituko; txandaketa sistema baten bidez egin ohi ziren hauteskundeak: normalean, Donostia; Irun eta Tolosako barrutiak urte batean, eta handik bi urtetara, Bergara eta Azpeitiako barrutiak.

1890ean ospatu ziren Diputaziorako hauteskundeak izan ziren sufragio unibertsalarekin ospatu ziren lehendabizikoak. Hauteskunde partzialak izan ziren, Donostia, Irun eta Tolosako barrutietako ordezkariak berritzeko; Koalizio Liberala antolatu zuten guztietan, emaitza onak lortu zituzten¹¹. Errepublikanoek guztira, bost ordezkari, lau Donostian eta bat Irunen. Hiriburuan, abstentzioa %49ra iritsi zen eta Irunen berriz, %64ra. 1894an eta 1896ko hauteskundeetan, hautagai bana sartu zuten karlisten esku zegoen diputazioetan, eta 1899ko hauteskunde orokorretan bezala, 1898ko Diputaziorako hauteskundeetan, berriro ere, errepublikanoek emaitza oso ona lortu zuten. Errepublikanoek liberalen laguntza izan zutela dirudi: guztira zazpi hautagai aurkeztu zituzten hamabi postu betetzeko. Abstentzio altuaren ondorioz, berriro, zazpiak sartu ziren Diputaziora: Irunen eta Donostian hiruna, eta Tolosan bat¹². Errepublikanoek Berrezarkuntza osoan lortutako emaitzarik onenak izan ziren hauek, are gehiago, Tolosako barrutian lehendabiziko aldiz ordezkari bat lortu zutela jakinda. Aukeratu ziren hamabi diputatutik zazpi errepublikanoak izan ziren (%60)¹³.



Udal hauteskunderi dagokienean, aipatu, 1889ko ekainaren 27ko Errege Dekretuak, herri eta hirien antolamendua berritu zituela, barruti eta hautes-

11. Gipuzkoan Koalizioa antolatu bazen ere, Duartek aipatzen duenez, Sufragio Unibertsalaren legearen ostean, Diputaziorako lehietan posibilitateak monarkia eta errepublikaren arteko «antinòmia» adierazten saiatu ziren. Dena den, emaitza onak lortu zituzten; DUARTE, Angel, Possibilistes i federals. Política y cultura republicans a Reus (1874-1899), Reus: Associació D'Estudis Reusencs, 1992; 128-130.orr.

12. *La Unión Vascongada*, 1898/9/6, 2.

13. Grafikoa, gainontzeko grafikoak bezala, autoreak berak egin du. Behean hauteskundeak ospatu ziren urtea. Parentesi artean (x) hauteskunde haietan lehian zegoen ordezkari kopurua.

kunde eskolak 1887ko eroldaren arabera antolatuz¹⁴. Adibidez, Donostia hiru barruti izatetik sei barruti izatera pasa zen (Merkatukoa, Institutukoa, Antzokikoa, Udaletxekoa, Atotxakoa eta Antiguokoa eta barruti hauek euren baitan, Atotxakoaren salbuespenarekin, beste bi azpi-barrutitan zatitu zituzten). Banaketa berria ardatz hartuta, hamarkada hartan, 1891, 1893, 1895, 1897 eta 1899an ospatu ziren udal hauteskundeak.

Aurrez aipatu bezala, oso zaila da informazio zehatza aurkitzea. Alde batetik, udal hauteskunderi buruzko informazioa oso exkaxa delako, baina nagusiki, kasu gehienetan oso zaila delako errepublikanoa nor zen definitzea. 1891 eta 1893ko hauteskundeetan adibidez, probintziako udal ezberdinetan koalizio liberalak aurkeztu ziren. Koalizio hauetan, errepublikano eta monarkikoak elkartzen ziren, bakoitzaren filiazioa zehaztu gabe. Irunen esaterako, bi data horietan ospatutako hauteskundeetan, bederatzi zinegotzi lortu zituzten errepublikanoek, Eibarren gutxienez hiru, eta Tolosan, gutxienez bi (udalean liberalek gehiengoa mantendu zuten gainera). Gainontzean, badakigu Ordizian, Zegaman, Soraluzen, Hernanin, Ataunen, Beasainen, Deban, Hondarribian, Idiazabalen, Legazpin, Arrasaten, Mutrikun, Orion eta Zumarragan adibidez, emaitza onak lortu zituztela. Ziur asko, errepublikanoak ere egon ziren tartean, baina hori ziurtatzea oraingoz ezinezkoa egin da. Hauteskunde hauen ostean Gipuzkoako hiri garrantzitsuenek, gehiengo liberala izan zuten udalean eta Eibar, Irun eta Tolosan esaterako, liberal haien artean eragin gehien zutenak errepublikanoak izan ziren¹⁵.

1895eko udal hauteskundeak ere antzeko bidetik jorratu zituzten errepublikanoek. Hiriburuko emaitzak txarrak izan ziren, desadostasunen ondorioz, errepublikanoek hamabi hautagaietatik bakar bat sartu baitzuten, 669 boto eskuratuta (udalean sartzeko beharrezkoak baino 1100 gutxiago). Probintzian, aurrekoan baino emaitza kaxkarragoak lortu arren (Irunen bi bakarrik adibidez), orokorrean onak izan zirela esan daiteke, ziur asko, Koalizio Liberalaren barnean aurkeztu zirelako. Tolosan esaterako, bi errepublikano sartu ziren udalera baina Bergaran bezala udala karlista eta katolikoek kontrolatu zuten; eta Hernanin, Ordizian, Beasainen, Deban eta Pasaian Koalizio Liberalak emaitza onak lortu zituen.

1897ko hauteskunderi buruz informazio gutxi lortu da. Hiri nagusienetan, errepublikanoek emaitza onak lortu zituztela dirudi, baina gainontzekoetan, ez da jakin. Donostian, Koalizioari esker gutxienez hiru errepublikano sartu ziren udalean eta Irunen lau. Hondarribian ere koalizio liberalak irabazi zituen hau-

14. AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, Joseba eta SERRANO, Susana, Bilbao desde sus alcaldes: Diccionario biográfico de los alcaldes de Bilbao y gestión municipal, en tiempos de la revolución liberal e industrial, vol.1: 1836-1901, Bilbo: Bilboko Udala, 2002; 547.or.

15. Azpeitiko udalean adibidez, Francisco Alberdi liberalak zinegotzi postua lortu zuen; VG, 1893/1/7, 1.

teskundeak eta Tolosan, bi errepublikano sartu ziren. Eibarren, Antonio Iturrioz aukeratu zuten alkate.

Monarkikoeekin koalizioan joateko ohiturari jarraikiz, mendea amaitu aurreko azken hauteskundeetan ere, emaitza onak lortu zituzten errepublikanoek. Donostian adibidez, gutxienez lau errepublikano sartu ziren; Eibarren eta Bergaran, bakoitzean launa errepublikano; Irunen hiru, Errenterian bi eta Pasaian bat. Tolosako udalean, nahiz eta hauteskundeok karlista eta integristek irabazi, lau errepublikano zeudela kontatu da. Pasaian, Hernanin, Zumarragan, Beasainen, Ormaiztegin eta Azpeitian ere liberalek zinegotziak lortu zituzten¹⁶.

XIX.mendearen azken hamarkada hau izan zen hauteskunderi dagokienean, Gipuzkoako errepublikanoentzat garairik aberatsena. Hasieran, sufragio unibertsalaren ezarpena errepublikanoen artean askorik igarri ez bazen ere, urteek aurrera egin ahala, legearen alde onak probestu zituztela esan daiteke. Gorteetarako ordezkari bakarra garai honetan lortu zuten eta Diputaziorako beste hamaika eskuratu, 52 ordezkariatik ia laurdenak (%21'1). Udal hauteskunderi dagokienean, emaitzak ezin dira erabat positibotzat hartu, karlista eta integristek herri gehienetan irabazi baitzuten. Egia da baita, zailagoa dela kalkuluak ateratzea, ikusi denez, errepublikanoak ziren edo ez ziurtatzea ia ezinezkoa delako¹⁷. Aipatu, nahiz eta Koalizio Liberala ofizialki 1893ko irailean desegin, probintziako herrietan errepublikano eta monarkikoen arteko akordioak ezinbestekoak izan zirela erreakzioari aurre egiteko; horiei esker, gutxienez 46 zinegotzi lortu zituztela. Horietatik hamabi Donostian.

3. MENDE HASIERATIK FORU LIGA DESEGIN ARTE, 1900-1907

Canovasen heriotzak (1897) eta kolonien galerek Estatuan eragin zuten krisiaren ondorioz, 1901ean, Sagastak jaso zuen gobernu berria eratzeko ardua¹⁸. Gipuzkoari dagokionean, mende berriarekin batera eskenatoki politikoa ere aldatzen hasi zen. Alde batetik, liberalismoaren eta karlismoaren arteko banaketaren ordezkari probintzia, poliki-poliki, *ezkerraren* eta *eskuinaren* artean banatzen hasi zen. Joera hau benetan, Bartzelonako Aste Tragikoaren ostean sakondu zen. Hori dela eta, errepublikanismoaren baitan, korrante erradikalak indartzen hasi ziren, langile klasearekiko eta arazo sozialekiko kezka azalera-tuz. Beste aldetik, Foru Ligaren sorrerak errepublikanismoaren eta orokorrean liberalismoaren bilakaera baldintzatu zituen. Hauteskunderi dagokienean, gertaera guzti hauek euren aztarna utzi zuten. Errepublikanoek adibidez, urte

16. VG, 1899/5/15-16, 1.

17. Aipagarria da, zinegotzi edo hauteskundeetarako hautagai agertzen diren asko, errepublikanoen egunerokotasunean ez zutela parte hartze handirik izaten, eta batzuk, lehendabiziko aldiz agertu izan zirela. Fenomeno honek noski, identifikazioa ikaragarri zaildu du

18. MORENO LUZON, Javier, Alfonso XIII...*op.cit.*, 307.or.

hautetan zehar, Berrezarkuntza garaiko zinegotzi kopuru altuena lortu zuten.

Hauteskunde orokorrak 1901, 1903 eta 1905ean ospatu ziren. Aurrez aipatu bezala, errepublikanoek ez zuten ordezkariarik lortu. 1901ean, Donostian, Rafael Picavea monarkiko eta errepublikanoen babesarekin garaile atera zen, euskaldunen eta euskal interesen alde egingo zuela esanez. 1903an, errepublikanoek euren hautagaia aurkeztu zuten, monarkikoen laguntza jasoko zutelakoan. Monarkikoen ez zuten akordioa bete¹⁹. Urte hartan gainera, Donostian hautagai sozialista aurkeztu zen, Casimiro Muñoz eta 827 boto eskuratu zituen, 1899an Pablo Iglesiasek baino 740 gehiago²⁰. Muñozen presentzia, langile mugimenduaren igoeraren eta sozialismoa hartzen ari zen garrantziaren erakusle da. Gainontzeko barrutiei dagokienean, Tolosa eta Azpeitia karlista eta integristek kontrolatu zituzten, eta Bergara eta Zumaia, monarkiko kontserbadoreek.

Diputaziorako hauteskundeak 1901, 1902, 1903, 1905 eta 1907an ospatu ziren. 1901ean, Bergara eta Azpeitiako barrutietan ospatutako lehiaren ondoren, Bergaratik Jose Trecu errepublikanoa sartu zen Diputazioan²¹. 1902an, Donostiako barrutian ospatu ziren bakarrik hauteskundeak, eta Carretero sozialistaren hautagaitzari aurre egiteko, errepublikano federalen, Partidu Errepublikano Autonomistaren (PEA) eta *sagastinoen* arteko akordioa eman zen. Ondorioz, errepublikano bat aukeratu zuten, Eustasio Ruiz de Eguino (PEA)²².

1903an ospatu ziren hauteskundeetarako (Donostia, Irun eta Tolosa) familia liberala batuta aurkeztu zen. Donostiako barrutian bi errepublikano izan ziren aukeratuak eta Irunen hiru. Beraz, urte hartan aukeratu zituzten hamabi hautagaitik bost errepublikanoak izan ziren (%42)²³. Liberalek Diputazioan nagusigoa eskuratu zuten.

1905eko hauteskundeetan, jada, Foru Liga osatuta zegoen. Ligan errepublikano kontserbadoreek, otzanek, ez zuten parterik hartu. Errepublikano bat sartu zen Bergarako barrutitik²⁴.

1907ko hauteskundeetan, errepublikanoak zatituta aurkeztu ziren: monarkikoekin koalizioan parte hartu nahi zutenak eta koalizioari uko egiten ziotenak. Azken hauen artean erradikalak eta federalak ziren nagusi. Orokorrean, liberalismoak emaitza kaxkarrak lortu zituen, jokoan zeuden hamabi ordezkarietatik

19. Irunen errepublikanoak ez ziren monarkikoekin adostasun batetara iritsi. Errepublikano batzuk ordea, Picavearen alde egin zuten lan.

20. VG, 1901/5/20, 1. Hauteskunde egunean sozialistek istilu handiak eragin zituztela dirudi.

21. VG, 1901/3/11, 2.

22. VG, 1902/4/14, 1. Carreterok baino ia 1.000 boto inguru gehiago lortu zituen.

23. VG, 1903/3/9, 1, eta *La Unión Vascongada*, 1903/3/9, 1.

24. VG, 1905/3/13, 1. Guztiak Ligaren hautagaiak izanik, ez zen lehiarik egon.

bi bakarrik eskuratuz. Bi horietatik bat izan zen errepublikanoa²⁵. Porrotaren errua beste errepublikanoei egotzi zien, jarrera “burugabea” erakutsi zutelako. Eraitza baino mingarriagoa egin zitzaien ordea, lehendabiziko aldiz euskal nazionalisten hautagaietako bat Diputazioan sartu zela ikustea²⁶. Diputazioan liberalek gehiengoa galdu zuten.

Udal hauteskunderi dagokienean, 1901, 1903 eta 1905ean ospatu ziren. 1901ean, barrutien berrantolamendua agindu zuten. Donostia adibidez, sei barruti izatetik zazpi barruti izatera pasa zen eta guztira, 18 azpi-barrutitan banatu zituzten barrutiok²⁷. Irunek lau barrutitan banatuta jarraitu zuen, Tolosak lautan, Eibarrek hirutan, Hondarribiak bitan, Errenteriak bitan eta Pasaia hirutan.

1901ean, probintzia osoan zehar monarkikoen eta errepublikanoen koalizio ezberdinak antolatu zituzten. Donostian adibidez, liberalen arteko koordinazioari esker, 17 zinegotzitik sei errepublikanoak izan ziren (%35). Hauteskunde haien ostean, familia liberalak 23 zinegotzi eskuratu zituen eta horietatik hamaika, errepublikanoak izan ziren²⁸. Probintzia mailan, errepublikanoek gutxienez beste 20 zinegotzi ere lortu zituzten²⁹. Koalizio liberalak orokorrean, emaitza onak lortu zituen Orion, Lezon, Alkizan, Pasaian, Getarian, Mutrikun, Bergaran, Hernanin eta Deban. Tartean, errepublikanoak egongo zirela nahiko ziurra da.

1903ko hauteskundeetan, emaitza onei eutsi zien errepublikanoek. Donostian Unión Republicanakoak monarkikoekin akordioa lotu zuten eta probintzia mailan ere, koalizio ezberdinak osatu ziren. Donostian bertan adibidez, aukeratutako 15 ordezkarietik sei errepublikanoak izan ziren (%40). Irunen eta Pasaian ere, errepublikanoek emaitza onak eskuratu zituzten. Salbuespena Eibar izan zen. Eibarren, nahiago izan zuten sozialistekin elkartzea eta horri esker, sozialistek lehendabiziko zinegotzia eskuratu zuten: Esteban Barrutia³⁰. Orokorrean, aurreko udal hauteskundeetan baino emaitza hobek lortu zituzten: gutxienez 27 zinegotzi.

1905eko udal hauteskundeak, Foru Ligaren testuinguruan ospatu ziren, eta horrek, errepublikanoen artean zatiketa gehiago eragin zituen. Lehendabiziko

25. VG, 1907/3/11, 1.

26. ARANZADI ETXEBERRI, Engracio, “Kizkitza”: Ereintza. Siembra de nacionalismo vasco, 1894-1912, Valladolid: Maxtor, 2010; 216.or. Euren kabuz aurkeztu ziren errepublikanoei «*republicanos rojos*» deitu zien Aranzadik, koalizioan joan zirenak baino izaera erradikalagoa zutelako, federalak kasu.

27. LUENGO TEIXIDOR, Felix, La crisis de la Restauración. Partidos, elecciones y conflictividad social en Guipúzcoa, 1917-1923, Bilbo: UPV/EHU, 1991; 186-187.orr.

28. VG, 1901/11/11, 1, eta *La Unión Vascongada*, 1901/11/11, 1.

29. *El Correo de Guipúzcoa*, 1901/11/12, 2.

30. VG, 1903/11/10-11, 1.

aldiz, errepublikanoen diskurtsoa aldatzen hasi zen. Donostian esaterako, monarkikoekin koalizioa defendatzeko erabili zuten argudioa ez zen karlismoaren aurkakotasuna izan, baizik eta bizkaitarrismoaren mehatxua eta *separatistak* udalera sartzeko zeukaten beldurra³¹. Donostian, beste behin, emaitza onak lortu zituzten, 16 zinegotzitik zortzi (%50). Ondorioz, osatu zen udal berria 34 zinegotzitik hamalau errepublikanoak izan ziren (%45). Eibarren, Bergara, eta Tolosan ere, emaitza onak eskuratu zituzten. Aipagarria agian, Irungo errepublikanoen kanpaina: udala Gobernuaren zentralismotik babestu eta Europatik zetozen korrante modernoeri kasu egin behar zitzaizela defendatu zuten. Bost errepublikano sartu zituzten Irungo udalean³². Honela Gipuzkoan, errepublikanismoak gutxienez beste 26 zinegotzi eskuratu zituen³³.

Mende berriko lehendabiziko hauteskunde hauek beraz, aurreko emaitza onekin jarraitzeko balio izan ziren, batez ere Diputazioan eta udaletan. Probintzian lehian egon ziren 41 eserlektutik bederatzia lortu zituzten (%22), aurreko urteetako portzentajea hobetuz. Aipagarria agian 1903ko hauteskundeetan hamabi postutatik bost eskuratu izana (%42). Udal hauteskundeetan, hiru saioak batuta gutxienez 73 zinegotzi lortu zituzten, kontuan hartu gabe 1901eko hauteskundeetan sartu ziren 66 liberalen artean errepublikano ugari egon zitezkeela, eta 1903 eta 1905ekoetan errepublikano asko liberal goitizenaekin zenbatu zituztela. Aipagarria baita, hauteskunde hauetan Donostiako udalean errepublikanoak lehen edo bigarren indarrak izana.

Emaitza hauek lortzeko monarkikoekin egindako koalizioek berebiziko garrantzia izan zuten. Koalizio horiek gainera, diskurtsoa aldatu zuten eta independentistek aurre egitera zetozela defendatu zuten.

Atala borobiltzeko esan, 1903ko hauteskunde orokorretan gertatutakoak (Picaveak Zavalari postua *lapurtu* izanak), eta 1907ko Diputaziorako hauteskundeetan lortutako porrot handiak, errepublikanismoarengan izugarritzko eragina izan zutela. Errepublikanoen artean zatiketak eman ziren eta gero eta sektore handiago batek, monarkikoekin harremanak hautsi eta bakarrik aurkeztea edo sozialistekin batzea defendatu zuen. Etorkizunean sozialismoak langileriarengandik jasoko zuen babesik ikusita, errepublikanoak babes hori lortzeko berandu mugitu zirela ondorioztatu dezakegu. Baina garai hartan, oraindik goiz zen halakorik pentsatzeko.

31. VG, 1905/11/4, 1. Aipagarria da baita, errepublikanoen artean agertu zen izen berrien kopuru altua

32. VG, 1905/11/14, 1.

33. Donostian (zortzi), Eibar (hiru), Irun (5+1), Tolosa (bi), Bergaran (bat), Pasaian (bi) eta Errenteriaz gain (hiru), Andoainen bat eta Zumarragan bat. Liberalek nagusigoa izan zuten 1906eko urtarrilaren lehendabizikotik aurrera Berastegi, Berrobi, Eibar, Hondarribi, Hernani, Irun, Mutriku, Oñati, Orío, Oiartzun, Pasaia, Errenteri, Donostia, Tolosa, Bergara eta Zumarragako udaletan. Hauetatik, Eibarren, Oñatin, Tolosan eta Bergaran errege aginduz izendatu zuten alkatea

4. ERREPUBLIKANOAK LANGILEENGANA HURBILTZEN, 1907-1914

1907ko bukaeran Kontzertu Ekonomikoa negoziatu ostean, Foru Liga desegin zen. Liga desegiteak bat egin zuen 1907an Maurak ezarritako hauteskunde lege berriarekin³⁴ eta 1909ko Bartzelonako Aste Tragikoarekin. Geraterok, Estatuko eta probintziako plano politikoan eragin handia eduki zuten. Estatuan bezala, Gipuzkoan ere katoliko kontserbadoreen eta liberalen arteko tartea handitzen joan zen eta errepublikanoek sozialismora hurbiltzeko joera erakutsi zuten. Errepublikanoek jorratutako bide berria tentsioz betetakoa izan zen. Donostian adibidez, Unión Republicana desagertu eta Donostiako Partidu Autonomoa sortu zuten.

Hauteskunde orokorrei dagokienean, 1907, 1910 eta 1914an ospatu ziren eta errepublikanoek, aipatu bezala, ez zuten ordezkariarik lortu. 1907ko lehiari, abstentzioaren alde egin zuten. 1910ean, Ezkerreko Blokean sartu ziren monarkiko progresista eta sozialistekin batera. Hautagaia Tomas Bermingham izan zen, eta kanpaina zehar, euskal probintzien (*provincias vascongadas*) autonomia defendatu zuen, euskal nazionalismoari aurre egiteko; langile klasearen aldeko joera ere hizpide izan zuten. Kontuak kontu, azkenean, monarkiko gehienek ez zuten Bermingham babestu eta Zavala eta Picavearen artean gertatu bezala, hauteskundeok monarkikoei irabazi zituzten³⁵. 1914ko hauteskunde orokorretan aipatzekoa agian, Bergarako barrutian monarkiko progresistek eta sozialistek lagunduta, Bilbotik ekarritako Enrique Ocio abokatu errepublikanoaren alde antolatu zuten kanpaina. Ociok, Barrutiko herrietan zehar bere autoarekin ibili ostean, Eibarren bakarrik irabazi zuen³⁶.

Diputaziorako hauteskundeak 1909, 1911 eta 1913an ospatu ziren. Hemen ere, emaitza kaxkarrak lortu zituzten. 1909an, Bergara eta Azpeitiako barrutietan lehiatu ziren. Azpeitian ez ziren aurkeztu ere egin, noski. Bergaran, "erreakzioaren" aurrean, alegia karlista, integrista, euskal nazionalista eta monarkiko kontserbadoreen koalizioaren aurrean, ezkerreko blokea osatu zuten. Propaganda handia gauzatu, Eibarko Orbea familia kontserbadoreengana hurbildu izana salatu eta Ferreren fusilamendua gogorarazi zuten. Lau hautagaitik errepublikano bakarra sartu zen, gainontzekoek baino 3.000 boto

34. Real Cuestaren arabera lege berriak aldaketa gutxi eragin zituen Euskal Herrian nahiz eta jauntxokerian sakontzeko baliagarria izan zen leku askotan. Izan ere, legeak, beste gauza batzuen artean, zera zioen: 29.artikuluaren arabera lehiari zeuden postuen kopurua adina hautagai edo gutxiago aurkeztzen baziren, lehiarik gabe guztiak aukeratuak izango ziren. REAL CUESTA, Javier, Partidos, elecciones y bloques de poder, *op.cit.*, 130.or., eta MARTINEZ CUADRADO, Miguel. Elecciones y partidos políticos, *op.cit.*, 760.or. Legea irakurtzeko, RUEDA, Juan Carlos, Legislación electoral española, *op.cit.*, 149.orratik aurrera. Errepublikanoak hasieran lege berriaren aurka agertu ziren, baina laster, eurak ere, partiduen arteko akordioak bilatzen saiatu ziren lehiarik gabe hautagaiak aukeratzeko.

35. Sozialista batzuen aurkakotasuna ere izan zuen Berminghamek.

36. VG, 1914/3/9, 1.

gutxiago lortuta³⁷.

Handik bi urtetara, 1911an errepublikanoek, bakarrik aurkeztuta, hautagaiak proposatzeko zailtasun handiak izan zituzten eta Donostian eta Irunen hiru errepublikanoen zerrenda berbera aurkeztu zuten. Bat bakarrik sartu zen Diputazioan: Pio Bizcarrondo³⁸. 1913an, berriro, Bergaran ezkerreko blokea osatu zen, emaitza kaxkarrak lortuta. 1896ko hauteskundeetatik lehendabiziko aldiz, Bergarako barrutitik ez zen errepublikanorik sartu³⁹.

Udal hauteskunderi dagokienean, 1909ko maiatzean, 1909ko abenduan, 1911an eta 1913an ospatu ziren. Orokorrean, ezkerreko indarren akordio ezberdinak gauzatu zituzten. 1909ko maiatzean, Donostian jokoan zeuden hamahiru ordezkariak lau ordezkari sartu zituzten errepublikanoek (%30), eta Eibarren beste hiru, udalean gehiengoa mantenduz. Guztira, probintzia mailan hamaika errepublikano iritsi ziren udaletara⁴⁰.

1909ko abenduan, emaitzak hobetzea lortu zuten errepublikanoek. Hauteskunde haiek Bartzelonako Aste Tragikoaren testuinguruan gertatu ziren eta eskuineko sektoreek arerioa erasotzeko argudiotzat aprobeztatu zuten. Absentzia oso altua izan zen Donostian, eta Conjunción Democrática izenaren azpian aukeratuak izan ziren hamalau hautagaitik gutxienez sei errepublikanoak izan ziren (%40)⁴¹. Eibarren, Irunen eta probintziako beste herrietan ere eskuratu zituzten zinegotziak errepublikanoek, guztira gutxienez, 20⁴². Hauteskunde haiek, demokraziaren garaipentzat saldu ziren probintzia osoan zehar.

1911ko hauteskundeetan, nahiz eta sozialistekin akordiorik lortu ez eta gazte errepublikanoekin zenbait desadostasun eduki, emaitza onak mantendu zituzten bai hiriburuan eta baita probintzian ere. Donostian, hamalau eserlektutik gutxienez bost errepublikanoentzat izan ziren (%35'7); euren izenak zenbait zerekin, 2790 botoekin, liberalek baino 1300 boto gehiago lortuta. Udal berriari sartu ziren gazteen ordezkariak gainera, arazoak sortzen jarraitu zuten, modu autonomoan funtzionatzea erabaki ostean. Gipuzkoan

37. VG, 1909/10/25, 2.

38. VG, 1911/3/12, 1.

39. VG, 1913/3/10, 1.

40. VG, 1909/4/29, 4, eta VG, 1909/5/3, 1, *El Correo Guipuzcoano*, 1909/5/3, 1, eta *El Pueblo Vasco*, 1909/5/3, 1. Probintziako herriei buruz *El Pueblo Vasco*-renak izan zehatzenak. Aipatu, *El Correo Guipuzcoano*-ren arabera, probintzian errepublikanoek 10 zinegotzi lortu zituzten, liberalek 26, karlistek 30, integristek 26 eta independenteak 65 izan ziren.

41. VG, 1909/12/13, 1-2, *El Correo de Guipuzcoa*, 1909/12/13, 1-2 eta *El Pueblo Vasco*, 1909/12/13, 1.

42. Donostian sei, Eibarren bi, Irunen bost, Erreterian hiru, Sorluzen bat, Altzan bat, Beasainen bat eta Legazpin bat. Hala ere, herri asko izan ziren «klerikalismoaren» edo bloke katolikoaren eskuetan erori zirenak, aipagarrienak agian, Tolosa eta Hernani. VG, 1909/12/14, 2.

guztira, gutxienez 21 zinegotzi lortu zituzten errepublikanoek⁴³.

1913ko hauteskundeetan, errepublikano kontserbadoreei kasurik egin gabe, gehiengoa sozialistekin akordioak egitearen alde agertu zen. Emaitza oso onak lortu zituzten beste behin ere. Donostian, lehian zeuden 18 postuetan zortzi errepublikano sartu ziren (%44'4), guztira hamahiru zinegotziren taldea osatu zutelarik udalean, talde politikorik handiena⁴⁴. Probintziako gainontzeko herrietan, berriro emaitza onak errepikatu zituzten, tartean, Eibarko eta Irungo bost zinegotziak. Guztira, gutxienez 21 zinegotzi eskuratu zituzten errepublikanoek⁴⁵.

Orokorrean, errepublikanoak langileen ordezkariengana hurbiltzen jarraitu zuten. Emaitzak, ez ziren onak izan. Hauteskunde orokorretan, ez zuten ordezkariarik lortu, batzuetan eurak bakarrik aurkeztu zirelako edo besteetan monarkikoen babesik jaso ez zutelako. Diputaziorako hauteskundeetan ere ez zituzten helburuak bete; ospatu ziren hiru hauteskundeetatik bi Bergara eta Azpeitiko barrutietan ospatzeak ez zuen askorik lagundu. Hala ere, 1911an Donostia, Irun eta Tolosan ospatutakoetan, jokoan zeuden hamabi eserlekutatik bat bakarrik lortu zuten (%8'3). Porrota handiagoa izan zela esan daiteke gainera, hautagaien zerrenda osatzeko eduki zituzten arazoak kontutan hartzen baditugu. Guztira, tarte honetan jokoan egon ziren diputatuetatik %10'7 eskuratu zuten errepublikanoek.

Udal hauteskundeak izan ziren errepublikanoen emaitza kaxkarrak txukundu zituztenak. Beste behin ere, udal hauteskundeen eta gainontzeko hauteskundeen arteko funtzionamenduaren ezberdintasuna argi geratu zen. 1909an lortutako emaitza kaxkarren ostean (hamaika zinegotzi), hurrengo hiru hauteskundeetan 20 zinegotzitzako gutxieneko mugan aritu ziren eta Donostian errepublikanoena izan zen indar politiko nagusia 1909ko abenduko, 1911ko eta 1913ko hauteskundeen ostean. Edo beste era batera esan, azken hiru hauteskundeetan, Donostiako udalera sartu ziren hautagaien %40 errepublika-

43. VG, 1911/11/13, 1, *El Correo de Guipuzcoa*, 1911/11/13, 1-2, *La Constancia*, 1911/11/13, 1, eta *El Pueblo Vasco*, 1913/11/13, 1. Probintzian lortuta zinegotzien laburpena: Donostian bost, Errenterian bat, Tolosan bat, Eibarren hiru, Irunen lau, Pasaian bi, Berastegin bat, Leaburun bat, Bergaran bat, Soraluzen bat eta Elgoibarren bat. Liberalismoak zinegotziak lortu zituen besteak beste, Zarautzen lau, Arrasaten hiru, Mutrikun hiru, Deban bat eta lau independente eta Soraluzen bi; horien artean ere errepublikanoak egon zitezkeela pentsatzen da. *El Pueblo Vasco*-ren arabera, probintzia mailan errepublikanoek sei ordezkari lortu zituzten bakarrik, liberalek 22, karlistek 23, katolikoek 23 eta beste 47 independentek lortu zituzten.

44. VG, 1913/11/10, 1; *El Correo del Norte*, 1913/11/10, 1-2, eta *El Pueblo Vasco*, 1913/11/10, 1-2. Gainontzeko indarren artean, sozialistek bi zinegotzi, liberalek zortzi, nazionalistek lau, kontserbadoreek bost eta jaimistek bat izan zuten

45. *El Correo del Norte* tradizionalistaren arabera (1913/11/10, 1-2), probintzia mailan errepublikanoek hamalau ordezkari lortu zituzten, karlistek 46, integristek lau, liberalek 25, katolikoek 22 eta beste 30 independente sartu ziren udaletara.

noa izan zen⁴⁶. Urte hauetan beraz, maila lokalean, monarkikorik gabe eta sozialisten laguntzarekin, probintziako hiri nagusienetako lehen indarra bihurtu zen errepublikanismoa.

5. ERREPUBLIKANISMOAREN GAINBEHERA, 1914-1923

Gerra Handitik Primo de Riveraren diktaduraren hasiera arte doan Berrezarkuntzaren garai hau, errepublikanismoaren gainbeheraren garaia izan zen, bai Estatu mailan, eta baita Euskal Herrian ere. Aurreko urteetan hauteskunde orokorretan eta Diputazioetarako hauteskundeetan eskuratutako emaitza kaxkarrek eta hautagaitzak eratzeko zailtasunek, errepublikanoen arazoan adierazgarri izan ziren. Monarkikoak errepublikanoengandik aldentzen ari ziren garai hartan, sozialismoa asko indartu zen eta euskal nazionalismoak protagonismoa aldarrikatu zuen. Testuinguru hartan, errepublikanoek esparru politikoa galdu zuten eta erantzun bezala, Euskal Herri mailako estrategiari heldu zioten. Hegoaldeko lau probintzietako errepublikanismoa antolatzeke saiakerak izan ziren nagusi.

Berrezarkuntza sistema krisian sartu zen Gerra osteko krisi ekonomikoarekin batera, eta bederatzirteren barruan ospatu ziren bost hauteskunde orokorrak, gobernu ezegonkorren adierazle izan ziren. Hauteskunde orokorrak, 1916, 1918, 1919, 1920 eta 1923an ospatu ziren. Errepublikanoek ez zuten hautagairik lortu. 1916an, monarkikoekin edukitako enegarren haserrearen ondorioz, sozialisten artean bilatu zuten babesak; barruti guztietan aurkeztu ziren errepublikanoak, eta barruti guztietan porrot egin zuten⁴⁷. Hurrengo hauteskundeetan ere, errepublikanoen artean banaketak eman ziren: monarkikoekin batu nahi zutenen eta sozialistekin aurkeztu nahi zutenen artean. Aipatzekoak agian, 1920eko hauteskunde orokorretarako, monarkiko batzuekin Juan Usabiaga errepublikanoa babesteko lortutako adostasuna edota 1923an ezkerreko indarrek egindako kanpainaren barruan sortutako desadostasunekin, errepublikano askok abstentzioaren alde hartutako erabakia. Foruen aldeko joerak ugari izan ziren kanpainan zehar.


Diputaziorako hauteskundeak ere, bost alditan ospatu ziren: 1915, 1917, 1919, 1921 eta 1923. Hauteskunde hauek, gainbeheran jarraitzeko bide izan ziren, guztira hiru hautagai bakarrik lortu baitzituzten. 1915ean, monarkikoekin lortutako adostasunak, errepublikano erradikal, sozialista eta gazte

46. Beste behin ere, zaila izan da garai hauetan errepublikano guztiak identifikatzea, are gehiago, «independente» eta «demokrata» izenpean hautagai asko aurkeztu ostean. Hernanin esaterako, bi liberal izan ziren aukeratuak, eta horietako bat Manuel Zubillaga izan zen, «*repúblicano católico*», *fundador de esa nueva agrupación política del mismo nombre, de la que es el único miembro hasta la fecha*». VG, 1909/7/6, 2.

47. VG, 1916/4/10, 1.

errepublikanoen aurkakotasuna ekarri zien. Abstentzio altuarekin, Donostian ordezkari bat atera zuten eta Irunen beste bat⁴⁸. Bi urte geroago, 1917an, Azpeitiako barrutia ahaztu eta Bergaran zentratu zituzten esfortzuak, baina sozialistek hautagai propioa aurkeztuko zutela jakin zutenean, errepublikano eta demokratek abstentzioaren alde egin zuten. Bloke katolikoak irabazi zituen hauteskundeak.

1919an lortu zuten errepublikanoek euren azken ordezkaria Diputazioan. Donostian porrot egin bazuten ere, Irungo barrutian, Errenteria eta Pasaiakoek ekimenari esker, Blas Echegoyen aurkeztu eta 29.artikulua aplikatuz, probintziako gobernuan sartu zen. Hauteskunde hauetan, sozialista eta euskal nazionalistak errepublikanoen aurretik geratu ziren⁴⁹.



Udal hauteskundeak 1915, 1917, 1920 eta 1922an ospatu ziren. Hauteskunde hauek ere, errepublikanoen gainbeheraren adibide dira. Joera orokorra, sozialisten eta monarkikoen arteko zentzoko politika bat proposatzea izan zen, udaletara kudeatzaile onak bidaltzeko asmoz. Gerra Handiaren eta Berrezarkuntzaren krisiaren testuinguruan, estrategia ona izan zitekeela dirudien arren, errepublikanoei ez zien funtzionatu. Hautagaiak lortzeko zailtasunak eduki zituzten, beste behin, eta euskal nazionalismoak eta sozialismoak, babes sozial eta politikoa *lapurtu* zien.

48. VG, 1915/3/15.

49. VG, 1919/6/30, 1, eta LUENGO TEIXIDOR, Felix, La crisis de la Restauración, *op.cit.*, 117.or. Grafikoa ez dira 1917, 1921 eta 1923ko emaitzak sartu, errepublikanorik ez zelako Diputaziora iritsi. Behean hauteskundeak ospatu ziren urtea. Parentesi artean (x) hauteskunde haietan lehian zegoen ordezkari kopurua. Egilea: autorea.

1915eko hauteskundeetan, euskal nazionalismoarekiko beldurra izan zen kanpainaren oinarria. Hiriburuan, hiru hautagai bakarrik lortu zituzten (%18'75), nahiz eta oraindik, hamaika zinegotzirekin, udaleko talderik handiena izaten jarraitu. Irunen bost, Eibarren lau eta Tolosan errepublikano bat sartu ziren udaletara. Udal haueetan, sozialistekin akordioak egin zituzten. Hurrengo hauteskundeetan ikusiko den moduan, hiri handi eta industrializatuenak izan ziren probintzian errepublikanoek lortutako zinegotzi kopuruari eutsi ziotenak, gainontzeko herri txikietan, berehala babesik gabe geratu baitziren.

1917ko hauteskundeetan beraz, antzeko egoera errepikatu zen: guztira 18 zinegotzi lortu zituzten errepublikanoek, ia guztiak, Donostian, Eibarren, Tolosan, Erreterian eta Irunen. Datu esanguratsuenen artean aipatu, Donostian bi zinegotzi bakarrik lortu zituztela, Irunen, kanpaina handirik egin gabe, oraindik, udalean talde nagusia izaten jarraitu zutela (beste bost zinegotzirekin), eta Eibarren, Berrezarkuntza garaiko emaitzarik onena lortu zutela. Hautagaitza adosteko zenbait arazo gairitu ostean, Partidu Autonomoak hiru eta gazteek bi hautagai aurkeztu zituzten. Bozketa eguna aurrera zihoan heinean konturatu ziren, eguerdi aldera, euren hautagai guztiak udalera bidaltzeko adina bozka lortu zituztela (*sic*). Oraindik botoa emateko kide asko falta zirenez, beste hautagai bat aurkeztu zuten, bere oniritzirik gabe: Narciso Alberdi. Alberdiren hautagaitzak, eguneko azken bi orduetan udalera sartzea lortu zuen eta eguna amaitu zenean jakin zuen, hautagaien artean aurkeztu zutela eta zinegotzi izango zela. Azkenean beraz, sei errepublikano sartu ziren Eibarko Udalean (%67), beste behin, nagusigoa mantenduz⁵⁰.

1920ko hauteskundeetan jada, errepublikanoen desgastea asko antze-man zen. Donostian berriro bi zinegotzirekin konformatu behar izan zuten. Zerrenda prestigiotsua aurkeztu eta kanpaina handi batekin bildu zuten: industria gizonak, abokatuak, medikuak eta doktoreak elkartu zituzten, udalaren kudeaketari garrantzia emanez. Dirudienez, estrategia hark ez zuen gizarte gatazkatsuan arrantzatzerik lortu. Sistemaren aurka altxatzen ari zen langileriak, beste erreferente batzuk bilatu zituen: euskal nazionalistak eta sozialistak. Tolosan esaterako, monarkiko, sozialista eta euskal nazionalistekin akordioak egin zituzten, mauristen aurka lehiatzeko. Ez zuten ordezkariak lortu. Irunen berriz, bost ordezkari lortu zituzten. Orokorrean, probintzia mailan gutxienez bederatzi ordezkari bakarrik lortu zituzten errepublikanoek⁵¹.

Berrezarkuntza garaiko azken udal hauteskundeak, 1922ko otsailean ospatu ziren. Donostian, lehendabiziko aldiz, errepublikanoek abstentzioaren alde egin zuten. Eibarren, eskenatoki politikoaren zentroan kokatuta egindako kanpainak, bi zinegotzi bakarrik eman zien, eta Irunen, azken 33 urteetako


50. VG, 1917/11/12, 1 eta 4.

51. VG, 1920/2/10, 8, eta LUENGO TEIXIDOR, Felix, La crisis de la Restauración, *op.cit.*, 184-185.orr.

emaitzarik txarrenak lortu zituzten, ordezkari bakarrarekin. Guztira gutxienez, lau ordezkari probintzia osoan. Orduko emaitzarik txarrena⁵².

Mundu Gerraren hasieratik Berrezarkuntzaren amaiera arte doazen urte hauetan ospatutako hauteskundeak, errepublikanismoaren bilakaeraren adierazle garbiak dira: sistema krisian sartu zenean, errepublikanismoa ere krisian sartu zen. Hauteskunde orokorretan ez zuten hautagairik lortu. Diputaziorako hauteskundeetan, jokoan egon ziren 52 ordezkari hiru ordezkari bakarrik lortu zituzten (%5'8). Hauteskunde hauetara errepublikanoak bakarrik edo monarkikoekin aurkeztu ziren, eta saiakerak hutsalak suertatu zitzaizkien. Eta udal hauteskundeetan, non errepublikanoak normalean emaitza onak lortu zituzten, beste horrenbeste. 1915eko emaitzek jada beherakadaren abisua pasa zuten.

Hasieran, herri eta hiri txikietan galtzen hasi ziren eragina, inguru kontserbadoreagoak ziren lekuetan. Gero, historikoki erreferenteak ziren hirietan. Aipatzekoa adibidez, 1922ko udal hauteskundeetara Donostian aurkeztu ere egin ez izana. Urte hartan, gutxienerako lau zinegotziko kopuruarekin borobildu zuten Canovasek diseinatutako garai sasi-demokratikoa. Ikusi denez, errepublikanoak konturatu ziren sozialistak langileria erakartzen ari zirela baina, ez zuten joera aldatzeko modurik aurkitu⁵³.



52. VG, 1922/2/7, 2, VG, 1922/1/31, 1, eta LUENGO TEIXIDOR, Felix, La crisis de la Restauración, *op.cit.*, 186-187.orr.

53. Grafikoan ez dira 1893, 1895, 1897 eta 1899an herri askotan errepublikanoek lortutako zinegotziak zenbatu, ez baitago ziurtasunik kopurua zehazterako orduan. Aipatu agian, Tolosa, Pasaia, Bergara edota Eibar. Azken honetan, 1897an esaterako alkate errepublikanoa egon zen, baina ez da jakin zehatz-mehatz zenbat zinegotzi errepublikano ziren. Beraz, grafikoa datozenak, gutxienez lortu zituzten zinegotziak dira. Behean hauteskundeak ospatu ziren urtea. 1909an bi hauteskunde ospatu ziren, maiatzean (m) eta abenduan (ab). Egilea: autorea.

6. ONDORIOAK

Berrezarkuntza garaiko Gipuzkoan, errepublikanismoa 1880ko hamarkadan hasi zen antolatzen. 1890ean ezarri zen gizonezkoen sufragio unibertsalak, hasiera batean, errepublikanoei ez zien berehalako abantailarik eskaini. Ziur asko, antolamenduaren ardatza, langileengandik urruti mantentzen zen Donostiako burgesiaren taldea zelako, eta hauek, monarkikoekin koalizioak antolatzeko joera erakutsi zuten ia hauteskunde guztietan⁵⁴. Adibide argiena agian, udal hauteskundeetan mendea amaitu arte lortutako emaitza ez hain onak izan daitezke. Diputazioan bestalde, ordezkari ugari lortu zituzten. Mendearen azken hamarkadako daturik aipagarriena ordea, Zavalak lortutako emaitza izan zen, Berrezarkuntza osoan zehar errepublikanoek Gorteetara bidali zuten ordezkari bakarra.

1900etik aurrera errepublikanoek liberal guztiekin koalizioan jarraitu bazuten ere, nolabait, arazo erlijiosoa erdigunean hartuta, *ezkerraren* eta *eskui-naren* arteko banaketaren lehendabiziko zantzuak antzeman ziren. Hauteskundeetan testuinguruan propaganda kanpainak areagotu ziren eta mitin handiak antolatzeko jarrera erakutsi zuten. Masa gizartearen sorreraren erantzun bezala ulertu daiteke jokamoldea. Errepublikano batzuk, langileengana hurbiltzeko beharraz jabetu ziren, baina ez zuten prozesua sekula gauzatu. Aldi berean, Gipuzkoan eta orokorrean euskal politikagintzan etsai berria agertu zitzairen errepublikanoei: karlisten lekua euskal nazionalismoak bete zuen. Mendearen hasierako urte haietan bestalde, Unión Republicanaren eragina nabaria da. Probintzian lortutako gutxieneko zinegotzi kopurua handitu eta Berrezarkuntza osoan lortutako emaitzarik onenak lortu zituzten. Diputazioan berriro eragina galdu zuten errepublikanoek, batez ere Foru Ligaren ondorioz, eta udaletan errepublikanismoa sendotu zen. Donostian, Eibarren eta Irunen esaterako, 1900-1907 bitartean indar politiko nagusia izan zen errepublikanoena.

1907tik Diktadura arteko tartea, oso gorabeheratsua izan zen. Foru Ligaren desagiteak, liberalek erakutsitako joko zikinak eta Aste Tragikoak errepublikanismoa monarkikoengandik urrundu zuten eta sozialistekin harremanak estutu zituzten. Ondorioz, Gorteetarako hauteskundeetan ez zuten ordezkariarik lortu, eta diputaziokoetan ere emaitza oso kaxkarrekin konformatu behar izan zuten. Hala ere, udal hauteskundeetan Gerra Handiaren amaiera arte emaitza oso onak izaten jarraitu zuten. Donostian esaterako, berriro, indar nagusia izan zen errepublikanoa 1909tik 1915era. Gerraren amaierarekin batera Donostian errepublikanismoaren beherakadaren lehendabiziko zantzuak antzeman ziren,

54. Errepublikano hauei buruz gehiago jakiteko, BELAUSTEGI, Unai, "Los republicanos «incolores»: la militancia política dentro y fuera de los partidos políticos", In: *Espacio, tiempo y forma. Serie V, Historia contemporánea*, 28.zkia, 2016; 139-161.orr.; BELAUSTEGI, Unai, "Gipuzkoako errepublikanismoaren azterketa prosopografikoa (1868-1923)", In: *Vasconia*, 40.zkia, 2014; 59-90.orr., eta BELAUSTEGI, Unai, "La base social de la cultura política republicana: prosopografía del republicanismo (1868-1923)", In: *Historia social*, 92.zkia, 2018; 3-21.orr.

Eibarren 1920an eta Irunen 1922an ere ikusi zirenak eta azkenean, Berrezarkuntza emaitza txarrekin amaitu zuten. Donostian adibidez, udal hauteskunde batzuetan lehendabiziko aldiz abstenitu egin ziren.

Gertaerok azaltzen dituzten arrazoiak asko dira. Aurrez ikusi denez, Estatu mailan ere errepublikanismoa egoera kaxkarrean zegoen eta Berrezarkuntzaren amaierara justu xamar iritsi zen. Bestalde, sistemaren krisiak ez zion mesederik egin plano politikoaren erdian (zentro ezkerrean) kokatzen joan zen indar politiko honi; burges jatorrikoa berau, eskuinean sektore katolikoek nagusigoa lortu zuten eta ezkerrean, sozialistek langileria erakarri zuten. Adibiderik garbienak agian, Donostia, Eibar eta Irungo udalak izan daitezke, ia Berrezarkuntza guztian indar nagusia izan ondoren, azken urteotan eragin guztia galdu baitzuten⁵⁵.

1890-1923	Kongresua	Diputazioa	Udalak
Ordezkarikopurua	1	27	242

Amaitzeko, bi gogoeta. Alde batetik, konparaketa bat egiteko, Bizkaian errepublikanoek diputatu gehien 1911tik aurrera lortu zituzten, zortzi, hain zuzen ere Konjuntzio Errepublikano-sozialista martxan jarri zutenean. Hala ere, bizkaitarrek guztira 17 ordezkarikopurua lortu zituzten 1880 eta 1923 bitartean, gipuzkoarrek 1890-1923 tartean lortutako 35 ordezkarikopuruen erdiak. Errepublikanismoak Gipuzkoan izan zuen garrantziaz jabetzeko datu adierazgarria da hau⁵⁶.

Bestetik, aipatu, Gipuzkoan errepublikanismoak hiru gune nagusi izan zituela. Batetik Donostia, bestetik Irun eta Irun inguruak eta azkenik Eibar eta inguruetako herriak. Hauxe gain, Tolosan ere errepublikanoen presentzia ia aztertu den tarte kronologiko osoan zehar nabari da, eta nahiz eta barrutiko testuinguruak probintzia mailako erakundeetara iristeko aukerarik eman ez, hiri bera urte batzuetan liberalen esku jartzeko aukera izan zuten. Hau horrela, Gipuzkoan errepublikanismoak hiri eta herri handietan eta gune industrialetan ordezkaritza lortzeko joera izan zuela ondorioztatu daiteke; Eibar, Bergara, Elgoibar, Irun, Errenteria, Pasaia, Tolosa edota Donostiak berak hala erakutsi dute. Gune hauetatik haratago, errepublikanoak beste zenbait udaletan ere agertu ziren, Arrasate, Mutriku, Hondarribia, Berrobi, Hernani edo Zumarragan adibidez, baina hauetan, aurkakotasunei aurre egiteko, ohikoagoa izan zitzaion

55. Taula, 1890 eta 1923 bitartean errepublikanoek Madrildik Kongresuan, Diputazioan eta udaletan lortutako gutxieneko ordezkarikopuruaren laburpena da. Egilea: autorea.

56. Bizkaitarrek lortutako 17 ordezkarikopuruen artean sozialistak ere zenbatu dira. Gregorio Castañok egindako sailkapenean Konjuntziotik aurkeztu zirenak batera aipatu zituen, errepublikano eta sozialisten arteko ezberdintasunik egin gabe. Errepublikano bezala bi ordezkaritza bakarrik deskribatu zituen, demokrata bezala sei, ezkerreko ordezkarikopurua hiru eta Konjuntzioko kide sei, tartean Indalecio Prieto sozialista; CASTAÑO SAN JOSE, Gregorio: *La Diputación provincial de Vizcaya durante la Restauración (1877-1923)*, UPV/EHU, 2009, Tesia, Eskerrak Eduardo Alonso Oleari datuekin laguntzearen. Bilboko errepublikanoen buruz gehiago jakiteko, irakurri, PENCHE GONZÁLEZ, Jon, *Republicanos en Bilbao (1868-1937)*, Leioa: UPV/EHU, 2010.

liberalekin koalizioak antolatzea eta emaitzetan liberal goitizenez agertzea.

7. BIBLIOGRAFIA

AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, Joseba eta SERRANO, Susana, Bilbao desde sus alcaldes: Diccionario biográfico de los alcaldes de Bilbao y gestión municipal, en tiempos de revolución liberal e industrial, vol.1: 1836-1901, Bilbo: Bilboko Udala, 2002.

ARANZADI ETXEBERRI, Engracio, “Kizkitza”: Ereintza. Siembra de nacionalismo vasco, 1894-1912, Valladolid: Maxtor, 2010.

BELAUSTEGI, Unai, Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923): bilakaera, sustraiak, gizarteratzea eta prosopografía, UPV/EHU, 2014, Tesia.

BELAUSTEGI, Unai, “Gipuzkoako errepublikanismoaren azterketa prosopografikoa (1868-1923)”, In: *Vasconia*, 40.zkia, 2014; 59-90.orr.

BELAUSTEGI, Unai, Errepublikanismoa Gipuzkoan (1868-1923), Leioa: EHUPress, 2015.

BELAUSTEGI, Unai, “Los republicanos «incoloros»: la militancia política dentro y fuera de los partidos políticos”, In: *Espacio, tiempo y forma. Serie V, Historia contemporánea*, 28.zkia, 2016; 139-161.orr.

BELAUSTEGI, “Unai, La base social de la cultura política republicana: prosopografía del republicanismo (1868-1923)”, In: *Historia social*, 92.zkia, 2018; 3-21.orr.

CASTAÑO SAN JOSE, Gregorio, La Diputación provincial de Vizcaya durante la Restauración (1877-1923), UPV/EHU, 2009, Tesia.

CASTELLS, Luis: Modernización y dinámica política en la sociedad guipuzcoana de la Restauración, 1876-1915, Leioa: Siglo XXI, 1987.

CILLAN APALATEGUI, Antonio, Sociología electoral de Guipúzcoa (1900-1936), Donostia: Donostiako Aurrezki Kutxa, 1975.

DARDE MORALES, Carlos: “Significado político e ideológico de la Ley de Sufragio Universal de 1890”, In: *Anales de la Universidad de Alicante. Historia Contemporánea*, 10-11.zkiak, 1993-1994; 67-82.orr.

DUARTE, Angel, Possibilistes i federals. Política y cultura republicans a Reus (1874-1899), Reus: Associació D'Estudis Reusencs, 1992.

GARCÍA-SANZ MARCOTEGUI, Ángel, Caciques y políticos forales: las elecciones a la Diputación de Navarra (1877-1923), Iruña: A. García-Sanz, D.L, 1992;

LUENGO TEIXIDOR, Felix, La crisis de la Restauración. Partidos, elecciones y conflictividad social en Guipúzcoa, 1917-1923, Bilbo: UPV/EHU, 1991.

MARTINEZ CUADRADO, Miguel, Elecciones y partidos políticos de España (1868-1931), I. zkia, Madril: Taurus, 1969.

MORENO LUZON, Javier, Alfonso XIII, 1902-1931, Madril: Marcial Pons, 2009.

PENCHE GONZÁLEZ, Jon, Republicanos en Bilbao (1868-1937), Leioa: UPV/EHU, 2010.

REAL CUESTA, Javier: Partidos, elecciones y bloques de poder en el País Vasco, 1876-1923, Bilbo: Deustuko Unibertsitatea, 1991.

RUEDA, Juan Carlos, Legislación electoral española (1808-1977), Bartzelona: Ariel, 1998.